BIZITEGI ERAIKINA **JAUREGI JENERALA 12**
D MAILA

Egile eta data ezezagunak (segur aski Jose de Goicoa; 1894).
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan).

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi fatxada planoko jasodura bat (jatorrizko teilatupea berritzearen ondoriozkoa), jasodura mantsardatu bat eta beste jasodura atzeraeman bat, guztiak 1920koak. Harlanduzko fatxada, aluminiozko begiratokia duena laugarren oinean (1920an eraiki zena ordezkatzen du). Behe oineko erdialdeko baoa zati batean zabaldu zen (1920an). Konposizioko eta apaindura tratamenduko batasun argia dago kale horretako 4tik 16ra bitartean –hirugarren oineko ateburuen apaindurako desberdintasun txikiak salbu–, eta 15 cm-ko hurrenez hurreneko mailakatzeak ditu (14ren eta 16ren jatorrizko proiektua Jose de Goicoarena eta 1894koa da).

Babes erregimena.
1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatua eta atzeraemana (5. eta 6. goi oinak); 4. goi oineko erdialdeko begiratokia.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* 4. goi oineko erdialdeko begiratokia kentzea.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.